

» TELEGRAMA

Aurtengo **Maskarada** Sohüta-Hokiko gazteek emanen dute, lehen plazaratzea urtarilaren 10ean Sohütan; azkena Hokin, apirilaren 10ean **STOP Jose Antonio Azpia-zuren** hitzaldia (Gaia: Euskal emaztearen presentzia Aro Modernoan; XVI.-XVII. mendeetan) Baionako Euskal Museoa, urtarilaren 14an, arratsaldeko 6etan **STOP Band Jovi** musika taldeak “emanaldi familiarra” kontzertua emanen du Iruñeko Zentral aretoa; urtarilaren 10ean, arratsaldeko 6etan **STOP Iruñea nola?** elkarteak “Atlantiko beltza: esklabutza musikak, erresistentziako musikak” hitzaldia eskainiko du urtarilaren 22an, arratsaldeko 7etan, Iruñeko Katakarak-en **STOP**

» MUSIKA

Delikadezia



Montse Auzmendi

Mozart eta Bruckneren lanak

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Erik Nielsen.
Piano jotzailea: Judith Jauregui.
Lekua: Euskalduna Jauregia.
Data: abenduaren 11.

Judith Jauregui “toke” ederra du, hau da, noraino sakatu behar den tekla bakoitza, ze indar, ze tentsiorekin... hori guztia kontrolatzen du erabat. Horren ondorioz, soinu polita eta biribila ateratzen du pianotik, berak nahi duen soinua. Eta ez hori bakarrik, mila bertute ditu Jauregui pianoaren aurrean. Baina, beharbada, soinuaren edertasunak ito dezake diskurtso musikala. Pianoaren munduan badago soinuaren halako mitifikazio bat. Berez, tekla bakoitza-

ren mailuak soinu lehorra ateratzen du (aldeak badaude piano batetik bestera, noski; ez da gauza bera Bösendorfer bat edo Yamaha bat), eta, gauzak horrela, piano jotzailearen abildadea da lehortasun hori nolabait leuntzea, pultsazio eraginkorraren bidez. Hau oso ondo asimilatua du Judith Jauregui. Horren truke, soinuaren etengabeko arreta horrek tentsio musikala makaldu egiten du batzuetan. Eta haxe gertatu zen Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin batera eman zuen azken kontzertuan. Mozarten 24. *Kontzertu* atsegin eta akatsgabea entzun genuen, baina, puntu bateraino, aspergarria ere bai. Dena polit-polita, fina, ondo egina, baina tentsiorik gabea. Ez ulertu, mesedez, saio txarra izan zela. Bertsio delikatu eta dotorea entzun genuen, zalantzarik gabe. Halere, ez da niri gehien gustatzen zaidan bertsioa. Agian nahiago nuke ukitu maskulinoagoa. Propina gisa, beste gutizia bat, aurrena bezain delikatua: Mompouren *Scènes d'enfants* liburuaren zatitxo bat, argitsua, fina, ñabarduraz betea. Jauregui Euskal Herriko pianista onenetako bat da eta halaxe demostratzen du errezitaldi bakoitzean.

Giroa erabat aldatu zen saioaren bigarren zatian. Bruckneren 3. *Sinfonia* re minorrean entzun genuen, erraldoia, Wagneren eragin handia duena. Erik Nielsen, BOSeko zuzendari titular berriak interpretazio freskoa egin zuen. Lanak duen barneko dramatismoa leundu egin zuen, nolabait distira vienarra kanporatzeko. Oso dotorea. ■

Judith Jauregui piano jotzaile donostiarra

